

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ZUMAIAKO UDALAREN 2008-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Zumaiako Udalaren 2008ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Kontu Orokorren fiskalizazio txostenak -Udalaren, bere Erakunde Autonomoen eta Sozietate Publikoaren kontuak barne hartzen dituenak- legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezketasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude zehaztuak.

Langileriari dagokionez, HKEEk adierazi du udalak hainbatetan urratu dituela Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean jasotako arauak. Hona hemen adierazgarrienak: 2008-2010 aldirako Udaleko eta erakunde autonomo bateko langileen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmena ez da argitaratu GAOn; Udaleko lanpostuen zerrendan ez da adierazi funtzionarioentzat gordetako lanpostuetarako esleituriko osagarri espezifikoak; Legeak aurreikusten ez dituen ordainsari kontzeptuen izenean ordainketak egin dira; eta bi bitarteko funtzionario eta aldi baterako bi lan kontraturen hautaketa prozesuetan ez dira bermatu berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak eta bitarteko funtzionario baten izendapenean ez da inongo hautaketa prozesurik gauzatu.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du Udalak urratu egin dituela administrazioko kontratazioa arautzen duten arauak. Hona hemen adierazgarrienak: 2008ko ekitaldian hainbat kontraturen indarraldia iraungia zela –txostenean jasoak daude- gastua egitea; zerbitzuak publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitzea, lehiaketaren prozedura orokorra salbuetsiko zuen kausarik izan gabe. Atal honetan beretan, Erakunde Autonomo eta Sozietate Publiko baten kasuan kontratazio araudia ez dela bete adierazi da.

Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horien aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Udalaren Diruzaintza Geldikina 1.104 mila euroan murriztu duena.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, sarrera fiskal, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen arloetan.

Azkenik, Udalaren finantza egoerari dagokionez, 2006-2008ko ekitaldian aurrezki garbia positiboa izan dela eta zorpetze maila biztanle-geruza bereko diren udalen batez bestekoa baino askoz ere txikiagoa izan dela jakinarazi du. Nahiz, 2008ko ekitaldian hain zuzen ere, sortu den aurrezki garbia kapitalezko eragiketak finantzatzeko ez den behar hainbatekoa izan. Halaber, txostenak adierazi du Diruzaintza Geldikina aurreikusitako inbertsioei aurre egiteko behar hainbatekoa izan badaiteke ere, Udalaren inbertsio gaitasuna aparteko baliabideak eskuratzeari meneratzen zaiola.